



Esp. kodea: 2015SAPL0009

Gaia: 2015-06-13ko bilkura. 2015-2019 Udal
Korporazioa eratzeko Plenoa

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2015eko ekainaren 13an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

2015-2019 Udal Korporazioa eratzea eta Alkatea hautatzea

Legezko tramiteak egin ondoren (hitza eman edo zin egin) Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza eman die 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan hautatuak izan eta gaurko bilkurara bertaratutako 21 zinegotzi hautatuei, eta Korporazioa formalki eratuta deklaratu da.

Eta bestalde, ikusiz alkate izateko bost hautagaietatik inork ez duela ekainaren 19ko Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruz Lege Organikoaren 196. b) artikulua xedatzen duen erabateko gehiengoa, 196 artikulua horretako c) atalean xedatutakoari jarraituz, Adineko Mahaiburuak adierazi du EAJ-PNV hauteskunde zerrendaburua, maiatzaren 24ko hauteskundeetan herritarren botu gehien lortu zuena izanik, Maria Ubarretxena Cid andrea aldarrikatzen dela Arrasateko Alkate.

Azkenik, Alkateak bere kargua onartu egin du.

Arrasaten, 2015eko ekainaren 13an.

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga